

Durango 1936

Egia /Juztizia / Ordaina

Durango 1936 Kultur Elkartearen urtekaria / 1. zenbakia 2018ko azaroa / 2€

**PATXI
ZURIKARAI**

Heriotza
zigorretik
alkatetzara

**EMAKUMEAK
PRESO**

Fugitivas de
la historia

ELKARRIZKETAK

JIMI JIMENEZ
ANTONIO CABELLO
URI RUIZ BIKANDI
JUAN MARI ESKUBI



04

Patxi Zurikarai Mendilibar
Heriotza zigorretik
alkatetzara



12

Juan Mari Eskubi
Entrevista



18

**Agirrereren ehun
pezetak**
Pasarte



19

**Libertad
zuen izena**
Pasarte



08

Emakumeak preso
Konpromiso politikoa
ukatu gura izan zieten



14

Uri Ruiz Bikandi
Elkarrizketa



20

**Durangaldeko
elkartek**
Laburrean

16

Jimi Jimenez
Entrevista



22

**Joseba Sarrionandia
eta Irati Eguren**



10

Antonio Cabello
Entrevista




Azaleko argazkia: **Benita Uribarrena Bollain**

Argazkiak: **Zalao Fuertes** (10,11,12,13,14,15 eta 16 orrialdeak)
Ilustrazioak: **Irati Eguren** (8, 22 eta 23 orrialdeak)
Testuak: Durango 1936 elkarte
Maria Gonzalez Gorosarri (8 eta 9 orrialdeak)
Katalin Garaita Zurikarai (19. orrialdea)
Joseba Sarrionandia (22 eta 23 orrialdeak)
Maketazioa: Anboto Komunikabideak - DHK
LG. 1696-2018

Durango 1936 Kultur Elkarte
Pinondo kalea 1, 48200 Durango
www.durango1936.org
durango1936@durango1936.org

AURKIBIDEA



Egia, justizia eta ordaina

Durango 1936 Kultur Elkartea 2007an sortu zen, Errepublikaren, askatasunaren eta Euskal Herriaren nazio-eskubideen alde faxismoari aurre egin zioten Durangaldeko herritarrei omen egiteko, euren borroka gogorra eta sufrimendu latza ezagutarazteko, eta zor zaien ohorea aldarrikatzeko.

Durango 1936 Kultur Elkartea egia, justizia, ordaina eta halako bidegabekeriari berriro inon ez gertatzeko aldarrikapenak egiten ditu. Urte luzeetan isildurik eta lokazturik izan dutenen **EGIA** kale-ratu nahi dugu, hots, altxamendu faxistari aurre egin ziotela aldarrikatzen dugu.

JUSTIZIA eskatzen dugu. Lege eta epaitegi faxistek erabakitako zigorrak ezabatzea nahi dugu, epaitegi faxistetan jo zituztelako errudun, eta gaur egungo epaitegietan eta justizia-sisteman ere horrela jarraitzen dutelako: zigortuta eta euren izenak eta izanak zikinduta.

ORDAINA exijitzen dugu, herritarrei eta herriari egindako kalteen ordaina. Halakorik inon berriro gertatu ez dadin ere borrokatzen dugu, giza-eskubideak, askatasuna, herri-eskubideak eta egiazko demokrazia funtsezkotzat jotzen baititugu.

Agurrik gabeak agurtzeko sortu zen Durango 1936 Kultur Elkartea, ahanzturaren kartzelan baztertuei zor diegun gorazarrea egiteko.

Batzuk armak eskuetan hil ziren, borroka latzetan. Beste batzuk fusilatuta egin zituzten, edo epaite-

gi faxistek horrela agindurik, bide bazterretan erail. Beste hainbat bonbardaketetan eta metrailaketetan hil zituzten. Makina batek tortura, kartzela eta *Trabajadore*etako esklabotza jasan behar izan zuen. Euskara erabiltzearen edo ideologiagatik baztertu zituzten beste asko. Umiliazioa, iraina eta bazterkeria pairatu behar izan zutenak zenbat!

Durango 1936 Kultur Elkartea hainbat omenaldi eta ekimen antolatu ditu hamarkada luzean: Agurrik Gabeak omenaldia urtero, Kurutzia ga kanean dagoen oroigunea, epaitegietan jarritako salaketen bultzada, eta lekukotasunen bilketa.

Hain zuzen ere, jaso ditugun lekukotasunei oihartzuna emateko ekimen batekin gatozkizue orain. Eskuen artean duzuen aldizkari xume hau. Berton ez daude faxismoa jasan zuten guztiak, ezinezkoa litzateke. Aldiz, gure webgunean (www.durango1936.org) ehundik gora lekukoren grabaketak bildu ditugu honez gero. Balio beza aldizkari honek zubi-lanerako, hainbeste sufritu zutenen ahotsa berreskuratu eta belaunaldi berriei entzunarazteko.

Amaitzeko, eskerrak eman behar dizkizuegu gure konfiantza jarri duzuen guztioi, lagundu duzuen guztioi, eta bide xume honetan bidelagun izan zareten guztioi.

Agur eta ohore!



PATXI ZURIKARAI

Heriotza zigorretik alkatetzara

Diktaduraren ostetik Durangoko herritarrek euren bozken bitartez hautatu zuten lehenengo alkatea izan zen Patxi Zurikarai Mendilibar jeltzalea. 1936ko altxamendu faxistaren osteko gerran boluntario aritu eta heriotza zigorrera kondenatua, behinola '*individuo peligroso*' legez izendatu zuten alkate frankistaren jesarleku berean jesarri zen 1979an.



Barrenkalekoa

Durango eta Abadiñoren arteko mugan, bigarrenari zegokion etxe batean jaio zen 1915. urteko urtarrilaren 29 batez Patxi Zurikarai Mendilibar. Hazi, Barrenkalen hazi zen. Hantxe bizi ziren eta bertan zuten denda gurasoek, Txominen eta Leonak.

Bere lehenengo eskolak Kalebarrian, gaur egun Udal Biblioteka dagoen erakinean hartu zituen, euskaraz, Genara Bilbaorekin. Handik Maristetara eta Jesuitetara hurrengo, Gasteizko seminariorako bidea hartu zuen azkenik. Jose Miguel Barandiaran eta Manuel Lekuona izango zituen han maisu. Sei urteren ostean, bokaziorik eza, edo mundua ikusteko gogo, abadetza albora utzi eta zerbitzari lanetan sartu zen Bilboko portutik abiatzen ziren itsasontzietan.

Gaztetatik EAJko kide aktiboa izan zen Zurikarai. Bere jardun zuzenki politikoaz gainera, kultur eragile sutsua ere izan zen, Jose Maria Sarrionandia Negu gor adiskidearekin eta gerora emazte izango zuen Luisa Lejarretarekin batera, besteak beste. Zurikarai Batzoki Tabiratako talde dramatiko kidea zen eta zenbait antzezlan taularatu zituzten Astarloa-Etxean (Batzokian) 1935 eta 1936 artean.

Gaztetatik EAJko kide aktiboa izan zen Zurikarai. Bere jardun zuzenki politikoaz gainera, kultur eragile sutsua ere izan zen.

Altxamendu faxista

Jakina denez, 1936ko uztailearen 18an bukatu ziren antzerki kontuak Patxi Zurikararentzat. Bere burua boluntario aurkeztu zuen faxistei aurre egiteko. Durangoko defentsa komiteko kide izan zen EAJtik eta, irailean, Ibaizabal batailoiko San Migel konpainian sartu zen soldadu. 1936ko Gabonen bueltan, Kirikiño batiloia osatzeko deitu zuten. Sarjento kargua bete zuen Kirikiñon harik eta komisario politiko izendatu zuten arte komandante graduarekin.

Bizkaiko frentea erori eta *Santoñako Ituna* sinatu ostean, 1937ko urriaren hasieran, soldadu italiarren aurrean errenditu zen Patxiren batailoia, Santoñan bertan. Italiarrek tratu ona eman ei zieten, baina bestela izan zen espai-

niarren esku utzi zituztenean. Duesoko kartzelan sartu eta hamar egunen buruan epaitu zuten. Kondena: heriotza zigorra.

Urte bereko azaroan zigorra berri-kusi eta hogeita hamar urteko kartzela zigorratik kommutatu zioten. Gabonetarako Bilboko Larrinagako kartzelan zuten. Hirurogei urte geroago El Correo egunkariari emandako elkarrizketa batean horrela gogoratzen zituen kartzelaldiko lehenengo hilabeteak: *“Epaitu ninduten egunean hamalau lagun fusilatu zituzten El Dueson. Larrinagara iritsi berritan, errege biharamunez beste hogeita hamazazpi. Gogoan ditut Ibarra anaiak (Antonio eta Juan), durangarrak biak, kartzelakide izan nituenak eta fusilatuak beraiek ere. Euron aitari, ezelako errurik barik, lanetik zetorren batean ‘paseoa’ egin zioten”*. Kartzelaldi osoan heriotzaren mehatxua beti presente izan zuen.

Burgosko kartzela

1938ko udaberrian Larrinagatik Burgosko kartzelara lekualdatu zuten. Bertan beteko zituen ezarritako zigorraren gainerako urteak. Kartzela berean izan zuten Antonio Trueba, Patxiren koinatua ere. Bizkaiko Aldundiko foruzaina izanik, faxistek Bilbo hartu zutenean ez zuen ihes egin eta Aldundiaren egoitza zaintzen geratu zen. Durangoko lau karlistek atxilotu zuten Aldundiko eskilaretan. Bederatzi urte egingo zituen preso.

Burgosko kartzelan presoentzako euskara eskolak eman zituen Patxik. Ihesbideren bat behar eta presoek korua ere antolatu zuten, non Patxik, musikazalea izanik, parte hartu zuen. Burgosko katedralera eroan zituzten behin kantura eta aukera hori probestu zuen Leona Mendilibarrek, Patxiren amak,

semea aurrez aurre ikusi ahal izateko, Durangotik Burgosera bidaia bakar-bakarrik eginda.

“Bajo su responsabilidad”

1943ko martxoaren 17an espetxe zigorraren errebisioa egin eta hogeita hamar urteko zigorra hamabi urtera jaitsi zioten. Patuaren ironia izan, ala bestela, 1943ko martxoaren 31 zela atera zen kartzelatik Patxi Zurikarai, faxistek Durango bonbardatu zutela sei urte betetzen ziren egunean. Zaintzapean geratu zen aske eta maiztasun batekin agertu behar zuen guardia zibilarenean.

Durangora iritsi eta udaletxera jo zuen herrian bizitzen geratzeko baime-na eskatzera. Han Bengoa zeritzon bategen hartu zuen, ez besoak zabalik, hain justu. Durangon geratzen bazen, *‘Bajo su*

Patuaren ironia izan, ala bestela, 1943ko martxoaren 31 zela atera zen kartzelatik Patxi Zurikarai.

responsabilidad’ izango ei zan. Alegia, ez zeukala ezelako ziurtasunik bakean eta lasai bizi ahalko zuenik. *Movimientoko* ordezkari baten ahotik halako erantzuna jasota, akaso egokiena mugaz bestaldera ihes egiten saiatzea izango zen, baina Patxik Durangon geratzea erabaki zuen. Familiaren egoera ez zen ona. Durangoko bonbardaketan Barrenkalen zuten denda birrinduta geratu zen eta arreba ezindu bat ere bazuen. Lan txikiren bat edo beste egin zuen harik eta Zugazartrek eurekin lanean hasteko eskaintza egin zioten arte. Garajes Moreno zeritzon autobus eta garraio enpresan hasi zen bulegari lanetan.



1




2



3



4



Jon
Irazabal
Gerendiagako
kidea

Patxi Zurikarai: euskal poliedroa

Etxeko sustraiak Zaldibar eta Abadiñon zituen baina Patxi Durangar petoa izan zen. Durangon jaioa baina ia sehaskan egin zuen topo euskara eta Euskal Herriarekin. Genara Bilbaok Kalebarrian zuen euskarazko eskolan burutu zituen lehen ikasketak.

Gaztaroan, barneko deiari erantzunez, edo bere zalantzei bidea aurkitu guran, abadegai

joan zen Gasteizko seminariora, egoitza haren garai nagusian. Barandiaran, Lekuona eta gure kulturaren hainbat gizon handi ezagutzeko aukera izan zuen bertan. Pentsatzekoa da barnean zeraman euskaltasunaren hazia Arabako lur haietan hasi zela ernatzen.

Eliz mundua utzirik, lau urtez itsasoratu eta mundua ezagutzera joan zen. Mundu handia ikusterakon konturatu zen mundu txikiak, hurbilekoak, handiak ere izan ahal direla, eta mundu txiki-handi hori bere sorterrian zeukala. Lehorreratu ondoren herri honekin "ezkondu" zen, bizi guztia bere alde lan eginez eta, une batzuetan, ha-

ren esku jarriz bizia bera ere.

Zer izan zen? Gudan gudari eta armada isilean burkide. Euskararen maitale, propagandista, eta nola ez, irakasle. Berdin zion egoerak eta garaiak: Errepublikara garaian, Batzokian; gerraostean, Burgosko kartzelan; diktaduran, Jesuitetan. Kulturaren mila aurpegiko militante, berdin antzezle, berdin kantari, eta noski, jelkide.

Euzkadi eta Euskadi maite izan zituen, Euskal Herria ere bai. Zuhaitzaren enborraz inoiz ahaztu gabe, argi izan zuen erretxinak mantentzen duela haritza bizirik, eta herri honek erretxina izan zezala izan zen bere lana eta zeregina.

1 Batzokian *Pedro Mari* antzezlaneko kideekin.

2 Frentean batailoiko kideekin.

3 Burgosko kartzelan (behean eskuman). Antonio Trueba (goian eskuman).

4 Lucarini eskultoreak Burgosko kartzelan Patxiri egindako marrazkia.



Euzko Naya

1944ko azaroaren 30ean, ordu bietako trenetan zetorren Bilbotik Patxi Zurikarai. Durangoko geltokian atxilotzeko zain zituena guardia zibilak. Gipuzkoatik emana zen agindua, Irungo komisaldegitik hain zuzen ere. Patxi gutunazal bat eta ehun pezetako billete bat zeroatzen aldean. Gutunazalaren barruan *Euzko Naya* erakunde klandestinoko hainbat kideren izenak zetozen. Patxiaren atxilotetaren ostean beste hainbat etorriko ziren erreskadana.

Euzko Naya 1943an sortu zuten EAJren bultzadaz. Jose Antonio Agirre Lehendakariak eta haren alderdiak bazuen esperantzarik II. Mundu Gerran aliatuak nagusi izanez gero, Francoren erregimena botatzen lagunduko zietela. Ez ziren eurentako asko alperrik ari aliatuekin kolaboratzen, bai zuzeneko borrokan eta, baita espiontza lanetan ere. *Euzko Naya* 'barnekaldeko' (Francoren menpeko lurretako) abertzaleek osatu zuten. Askok, Patxi legez, kartzelatik bueltan zetozen eta, momentuan, armamentu arrastorik ez bazegoen ere, aliatuen interbentzioren bat izango balitz ordena mantentzeko gudaroste baten egitura hartu zuen erakunde klandestinoak. 1944ko azaro-abenduko atxilotetak gertatu arte iraun zuen urtebete eskasean, *Euzko Naya*ren lana, beste ezer baino gehiago, informazioa batzea izan zen: zein zen herri bakoitzeko egoera, indar militarren presentzia, komunikabideak...

Patxi Zurikarai Durangaldeko *Euzko Naya*ko arduraduna izana zen, hain justu, 1944ko urrian ordezkatua izatea eskatu zuen arte. Atxilotu zutenean zeroan gutunazaleko informazioetik kalkulatu daiteke Durangon bazirela *Euzko Naya*ko hirurogei bat kide, hogeita hamar Elorrioren, eta dozena bat Berriz eta Garai batuta.

Berrogeita hiru atxiloteta izan ziren Bizkaian. Gutxi batzuk ihes egitea lortu zuten, *Euzko Naya*ren Bizkaiko burua zen Primitivo Abad Gorostiza muskiztarrak edo Pedro Loizate Lazpita berriztarrak

haien artean. Atxilotu zituztenetako hainbatek, berriz, tortura latzak jasan zituzten. Patxi izan zen horietako bat.

Meliton Manzanasen eskuetan

Arestian aipatu dugun moduan, atxiloteta egiteko eskabidea Irungo komisaldegitik zetorren. Mikel Rodriguez Alvarez historialariak *'Espías vascos'* (Txalaparta, 2004) liburuan jasotzen duenez, Saran eriondo zegoen gerrillari jeltzale batek makis komunistako kide bati *Euzko Naya*ko izen batzuk eman ei zizkion. Espainiako polizia, Meliton Manzanasen buru, talde komunistako kideak atxilo hartu eta espero ez zuen izen zerrendarekin egin zuten topo. Hortik ulertzen da Patxiaren atxilotetaren aginduaren jatorria eta etxekoek hainbatetan entzuna zioten Meliton Manzanasen eskuetan egon zenekoa. Ez ei zen Patxi inori buruz txarto berba egitekoa baina Manzanasen aipatu eta *"sadiiko bat"* zela esan ohi zuen, *"lan zikina inori itzi barik, berak egitea zuen gustuko"*. Gestaporen kolaboratzailea, haren izena zoritxarrean ospetsu egin zen urteekin ideologia ezberdineko erresistenteen artean. ETAk hil zuen 1968an, Irunen bertan.

Epaiketa hamaika urte beranduago

Bederatzi hilabetez, 1945eko abuztura bitartean izan zuten preso Patxi Zurikarai. Epaiketa berriz, hamaika urte beranduago, 1956an egin zitzaizen enkausatuta zeuden berrogeita bi pertsoneri. Patxi sei hilabetez kartzela zigorra ezarri zioten, beteak zituenak baino hiru gutxiago.

Alkate

1979an, diktaduraren osteko lehenengo udal hauteskundeetan Patxi Zurikarai Mendilibar izan zen EAJren zerrendaburua. Alderdi jeltzaleak gehiengo absolutuz irabazi zituen hauteskundeak eta Patxi izendatu zuten alkate. Behinola udaletxe horretan bertan esan zioten moduan, halaxe geratu zen Durango *"Bajo su responsabilidad"*.



Aitziber Irigoras Durangoko alkatea

"Dana emon biyar yako maite den askatasunari"

Poeta jeltzalearen olerkia ezaguna bezain zirraragarria da. Are gehiago Askatasunaren mesedetan Lauaxetak bizia bera eman behar izan zuela dakigunean. Koherentziarekin, konpromisoa. Esteban Urkiaga ez zen bakararra izan. Ehunaka, milaka gizon-emakumek, asko eta asko eman zuten Askatasunaren alde frankismoaren urte luze, beltz eta beldurgarrietan. Euren artean aipamen berezia behar du, duintasun osoz eta ohore guztiekin, Patxi Zurikarai zenak.

Patxi Zurikarai ere bere bizia eman zion hainbeste maite zuen Askatasunari, beste era batean baina. Koherentzia maite zituen Askatasuna eta Aberria, gure kultura eta euskara, herria eta euskaldun izatea. Abertzale eta jeltzale zintzoa izan zen. Eta tamaina horretako koherentziaren ondorioz, hainbat eta hainbat sufrimendu pairatu behar izan zituen: gerra, kartzela, errepresaliak, mespretxua... Leialtasunaren ondoriozko konpromisoari men eginez.

Askok eta askok Patxiaren irudiari begira ikasi izan genuen gure abertzaletasuna zelana gauzatu. Gure etxetan ikasitakoa eta bihotzetan sentitzen genuena bera bezalako eruedetan gorpuztuz. Eta leialtasuna zer zen ere horrela ikasi genuen. Leialtasunaren benetako esangura. Koherentziaren eta konpromisoaren ondorioak garai ilunetan.

Patxi Zurikarai merezimen du osoz izan zen gure herriak hauteskundeetan hautaturiko lehenengo Alkatea, EAJren lehenengo Alkatea Durangon Francoren diktadura ostean. Leialtasuna, koherentzia eta konpromisoa. Katea ez zen eten. Katea ez da eten. Agur eta ohore.

Comandancia, como consecuencia del hallazgo de unos documentos intervenidos a FRANCISCO ZURICARAY MENDILIBAR, vecino de Durango, al ser detenido en la estación de aquella localidad por el Capitan de la Compañia D. Evaristo Ordoñez Perez y fuerza a sus ordenes, a la llegada del tren de las dos de la tarde anterior, procedente de esta Capital, en virtud de requerimiento de la Comisaria de policía de Irún (Guipuzcoa), que lo interesaba para ser puesto a disposición del Excmo. Sr. General Gobernador Militar de aquella Provincia, por cuyos documentos se demuestra la existencia de una organización de carácter sepa-

1 Epaie espedientean Patxiaren atxiloteta aginduaren xehetasuna.



EMAKUMEAK PRESO: Konpromiso politikoa ukatu gura izan zieten

Andren aurkako errepresio faxistak haien konpromiso politikoa gutxiestea zuen helburu. Horregatik, Euskal Herriko eskubide nazionalen alde eta aberastasuna langileen artean banatzeko faxismoari aurre egin ziotenak, guda amaitutakoan, ikusezin bihurtu gura izan zituzten.

Testua: **Maria Gonzalez Gorosarri**

Gizonak gerrako presoak ziren bitartean, andrak bahitu egin zituzten: espetxeak ez ziren eraikinetan bildu zituzten (komentueta, etxeetan...). Tomasa Cuevas preso komunistak *andrentzako biltegiak* esaten zien. Bizkaian lau zeuden: Durangon (Nevers komentu zaharra), Zornotzan eta Bilbon bi (Larrinaga eta Santutxuko Orue txaleta). Ez da haien arrastorik geratzen. Faxistek estatuan erabili zituzten ehundik gorako kontzentrazio-zelaiaren antzera, oroimena birrindu gura izan digute.

Euskal Herrian, 1937tik aurrera, borroka antifaxistari espetxean ere aurre egin zioten. Andrak pilotuta edukitzen zituzten Durangoko espetxea, lau ezauzgarrik bereizten zuten gizonezkoen kartzeletatik. Aipatu dugun bezala, Du-

rangoko emakumeen kartzela ez zen espetxe-eraikina, komentua baizik. Horra lehena.

Bigarrenik, espetxeetako zaindaria ez ziren funtzionarioak, mojak baino.

Gizonak gerrako presoak ziren bitartean, andrak bahitu egin zituzten: espetxeak ez ziren eraikinetan bildu zituzten

Izan ere, andrak espetxeratzearen helburu nagusia haien bizitza "berbideratzea" zen. Mojek heziketa katolikoa emateko ardura zuten. Horrela, presoei kontsiderazio politikoa kendu zieten.

Hirugarrenik, presoaren izaera politikoa gutxiesteko beste neurri bat hartu zuen estatu faxistak: preso politikoak



1

1 Vicenta Garnika Laserna: Durangoko emakumeen kartzelan preso izan zuten durangarra.



lege-hauste administratiboak leporatzen zitzaizkien beste presoekin egongo ziren. Preso antifaxistak lapurretak eta holako delituak egozten zizkieten andrekin egoten ziren. Francok guda irabazi ostean, andra gehienak arrazoi sozialengatik zigortu zituzten lege-hauste berriak leporatuta: abortua eta prostituzioa horien artean. Izan ere, estatu faxistak abortua berriro delitu bihurtu zuen, Errepublikak urte batzuk lehenago despenalizatua zuena. Prostituzioa ere abolitu zuen Errepublikak, lana ez zelakoan, andren aurkako zapalkuntzaren beste aurpegi bat baizik. Administrazio faxistak, ordea, prostituzioari etekina atera zion. Horrela, prostituzio autonomoa delitu bihurtu zuen eta gizonek gidaritutako proxenetismoa barrarik toleratu zuen. Ondorioz, espetxerazten zituzten prostitutak proxeneta barik, modu autonomoan zihardutenak ziren.

Laugarrenik, gizonek ez bezala, andrek euren seme-alabak eramaten zituzten espetxera, eurekin preso egotera. Kanpoan umeen ardurarik har zezakeenik ez zutenak, haien umeak preso ikustera behartu zituzten. Ondoren, gainera, *Auxilio Social*-ek haien ardua hartzen zuen. Falangearen *Sección Femenina* ren menpean zegoen erakundea zen *Auxilio Social*. Bere eginkizuna honela definitzen

zuen: "Ume hauek euren gurasoek egingakoa gaitzestea lortuko dugu". Durangoko espetxean zeuden umeek euren amekin egiten zuten lo, zoruan. Batzuei

Espetxeetako zaindariak ez ziren funtzionarioak, mojak baino. Helburu nagusia haien bizitza 'berbideratzea' zen.

etxeetako arto hostoz egindako koltxoia eramane zieten.

Espetxeetan umeak egonik, estatuak preso politikoaren seme-alabak lapurtzeko aprobetxatu zuen, kamioietan eramanda, Saturraren egiten zuten bezala. Edo, hiru urtegaraz *Auxilio Social*-en 'ardurapean' utzita, abizenak gogoratzen ez zituzten umeen izen-abizenak aldatzeko legea onartuz.

Espetxealdiak, baina, presoaren konpromiso politikoa berretsi zuen. Horrela, hiru lagunek osatutako *Komunitatea* eraikitzen zuten elkarri laguntzeko: espetxean zegoen herriko preso bat (etxeetako ja-

naria bidaltzen zioten), preso gazte bat (irakurtzen zekiena eta formakuntza politikoa zuena) eta preso nagusi bat (60 urtetik gorakoak, ez zekiten irakurtzen eta ez zuten haien egoera ulertzen). Durangoko espetxean zegoen Vicenta Garnikari, adibidez, Edurne Gorosarrik, hamar urteko alabak, amamak prestatutako otzara egunero eramaten zion espetxera. Baita Francoren Defentsa Ministro izan zen Varela militarra Casilda Ampuergaz Durangon ezkondu zen egunean ere. Egun horretan baina, Piondotik Santa Anako elizarako bidean ipini zuten alfonbrearekin estropezu egin eta otzaran zeroan esne-botila apurtu zitzaion Edurneri. Amak eta haren kideek ez zuten Varela ezkontza-egunean jan.

Komunitatea presoaren arteko elkartasunetik abiatu zen, preso politikoek faxismotik elkar babesteko premia zutelako. Eguneroko premia zen, espetxean eta espetxetik kanpo.

FUGITIVAS DE LA HISTORIA

Despojar de consideración política a cualquier mujer que hubiera participado en la vida social y hubiera colaborado en la lucha antifascista. Al fin y al cabo, el mundo entendía la guerra de 1936 como la primera batalla contra el fascismo que ya estaba gobernando en otros países europeos como Italia, Alemania o Portugal. Por eso, la resistencia antifascista de las mujeres de Durango se vio reflejada en la solidaridad hacia las presas, aunque no las conocieran. Por un lado, alojaban a familiares de presas en sus propios domicilios, sabiendo que corrían peligro de ser fusiladas o "desaparecidas". Además, cuando las familias de esas presas que no

conocían no podían venir a visitarles, eran ellas mismas quienes acudían a verlas a la cárcel, como hizo la madre de Maite Andueza Zabaleta. El compromiso antifascista de las mujeres de Durango a partir de 1937 fue, sobre todo, resistencia civil al régimen genocida. Fuera de nuestras fronteras, en el frente de la resistencia antifascista europea, otras mujeres de Durango también arriesgaban su vida, en especial: Benita Uribarrena Bollaín, su madre Benita y sus hermanas. Nos merecemos un futuro acorde a la dignidad de todas aquéllas que se negaron a vivir como vencidas en un almacén de mujeres e invisibles en una sociedad vencida.





ANTONIO CABELLO

La vida de un comunista

Antonio Cabello Linares (Bujalance, Córdoba 1933) es un durangués con toda una vida de militancia comunista a sus espaldas. Era un niño cuando asesinaron a su padre. Conoció desde muy temprana edad la explotación en su tierra natal y, a los diecisiete años, entró las Juventudes Comunistas. Militancia clandestina que desarrolló en Durango durante la segunda mitad del siglo XX.

Eras un niño cuando mataron a tu padre de una manera, digamos que, extraña. ¿Cómo sucedió?

Durante la guerra la familia huímos a Linares, que estaba aún en zona Republicana. A mi padre, como tenía mujer e hijos, en vez de llevarlo al frente, lo llevaron a trabajar a las minas. El camión que los trasladaba tuvo un accidente y lo ingresaron en el hospital de Córdoba.

Estuvo un tiempo en Córdoba, tiempo en el que la ciudad cayó en manos de los fascistas. Un día mandó una nota diciendo que le daban el alta y al día siguiente estaba en casa. Nunca llegó. Supimos más tarde lo que le sucedió por boca de un cura. Parece que ser que cuando le dieron el alta le fue un cura ofreciéndole confesión. Mi padre, que ya por aquellos tiempos estaba casado por lo civil, se negó a confesarse. Lo mataron allí mismo con una inyección.

De modo que, en plena posguerra, en Bujalance, tu madre se queda viuda y a cargo de la familia.

Tres hijos y la abuela. Sacó adelante a la familia trabajando sin parar. Hacía de cocinera en la casa de

“Un día mi padre mandó una nota diciendo que le daban el alta y al día siguiente estaba en casa. Nunca llegó.”

unos señores, iba a segar, en tiempo de la aceituna, a la aceituna... **Con diecisiete años, te marchas de Bujalance.**

Cuando cobré la primera mensualidad de jornalero, me fui. Me marché con otros dos de Bujalance. Primero a Madrid y luego, a pie, a Soria. Allí nos dijeron que había trabajo en la

construcción del pantano en Vinuesa, y allá nos fuimos. Fue allí donde ingresé en las Juventudes Comunistas, en una celula que se llamaba *El Hormiguero*.

Después tuve que volver al pueblo para el tallaje del servicio militar. Durante dos años estuve completamente desconectado. Fue después del servicio militar, cuando me vine para Durango, cuando volví a contactar con el partido.

Años 50, recién llegado a Durango... ¿Cómo contactas con el partido?

Un día se me acerca un chaval que no conocía para nada y me pregunta si soy Antonio Cabello. Que le habían dicho que era buen trabajador y a ver si quería trabajar en su compañía. Le pregunté a ver de qué compañía se trataba. Me dice: *'El Hormiguero'*. Nos dimos un abrazo allí mismo, *“¡Salud, camarada!”*. No lo volví a ver. Ahí me integré en el Partido y conocí al Camarada Moreno (Joaquín Moreno,



era un Niño de Rusia). En Durango eramos pocos: Ricardo Fariñas, Jose Mari Etxenagusia y yo.


¿Qué actividad teníais por aquel entonces?

En las empresas, conociendo gente poco a poco... Luego el Camarada Moreno nos dijo que teníamos que entrar en la JAED y así lo hicimos. Repartíamos los sobres para la construcción del edificio Astarloa y cosas así. Cuando nos eligieron para la junta directiva pedimos ver los libros de cuentas para saber a quién se le daba el dinero, quién lo daba... ¡Nunca conseguimos verlos! Así que lo dejamos.



“Fue en la obras del pantano de Vinuesa donde ingresé en las Juventudes Comunistas. Tenía diecisiete años.”

“Durante el servicio militar estuve desconectado. Cuando me vine para Durango, volví a contactar con el partido.”



De la JAED, al Centro Extremeño.

El Camarada Moreno, que me dice que entre en el Centro Extremeño. Yo le digo que no soy extremeño ni nada, pero insiste en que allí había mucho comunista. Entré poco a poco, hablando con uno, con otro, que si la guerra, que si Franco... Al tiempo ya éramos unos cuantos. Nos reuníamos cada quince días en casa de uno, a la siguiente en la de otro...

Pero estábamos desconectados del partido. Nuestra única conexión era Radio Pirenaica, y con lo que escuchábamos, hacíamos unas octavillas y las repartíamos aquí y allá. Se necesitaba un enlace con el aparato, y me escogieron a mí. En Durango no lo sabía nadie.



¿Cuál era la tarea del enlace?

Me tenía que encontrar con uno que venía de Francia, que lo llamaban *El Abuelo* y, después, tenía que repartir el Mundo Obrero. Hablé con el difunto Gabriel, del Bar Anboto, era una buena persona, y su mujer... ¡Más valiente!... Dejaba los ejemplares detrás de la cisterna del baño y hacía lo mismo en el Centro Extremeño. Luego iban los camaradas y los cogían.

También fundaste el equipo de fútbol del Centro Extremeño.

¡Yo no sabía nada de fútbol! (risas)... Es de nuevo el Camarada Moreno el que me dice que tengo que hacer un equipo de fútbol, que ahí está siempre la brigadilla de la guardia civil, y que cuanto más cerca los tuviera, más seguro estaría. Dicho y hecho. Al poco tiempo ya teníamos tres equipos. Allí había mucha gente de izquierdas, y yo hablaba con ellos.

La militancia clandestina no estaría exenta de aprietos...

¡Todos!... Recuerdo una vez que detuvieron a un camarada y me dijeron que me deshiciera de todos los ejemplares del Mundo Obrero que tenía en casa. Como vivíamos en una buhardilla, se me ocurrió subir al tejado y esconderlos debajo de las tejas. Lo hice y me olvidé de ello. Pasó el tiempo, llegó el invierno y empezó a llover. Reunión de la escalera: había goteras. ¡Joder! Ahí es cuando me acuerdo.

Vino un albañil al que conocía y que solía andar bastante con los guardias. Sube al tejado y me viene: “Antonio, que el tejado esta lleno de propaganda de la ETA”. No sabía muy bien qué hacer, pero tire por dos lados a la vez. “Yo creo que deberías dar parte, pero... Tú tienes familia y ya sabes que esos no se andan con chiquitas...”. No dio parte y se los llevó, pero yo ya me daba por jodido. Ha habido muchas veces que lo he pasado mal. Gracias a mi compañera, si no, no hubiera sido posible.

En 1977 se legaliza el PCE.

Y teníamos el partido bien armado, tanto en Durango como en Amorebieta. Ahí es donde entran los intelectuales y nos engañan con lo de Euskadiko Ezkerra. Nos lo quitaron todo y nos partieron el corazón... Lo que no consiguió Franco lo consiguió Euskadiko Ezkerra.



JUAN MARI ESKUBI

“Mi padre luchó contra el fascismo por la libertad, la República y los derechos de Euskal Herria”

Juan Mari Eskubi Arroyo nació en Durango en 1932. De niño vivió la guerra y los bombardeos en Durango y Bilbao. La familia se exilió en un pueblito cercano a Burdeos, del que regresó cuando su padre, Juan Eskubi Urutiaga, fue detenido por los fascistas, que lo asesinaron al año siguiente. Juan Mari fue el primer presidente de Durango 1936 Elkarte.

¿Por qué decidisteis crear Durango 1936 Elkarte?

Habían transcurrido 70 años del alzamiento fascista y todavía se hablaba poco y con miedo de los represaliados por el fascismo. Era necesario crear una entidad local, inmediata al pueblo, que reivindicase la labor de aquellos hombres y mujeres, de Durango y el Duranguesado, que lucharon por la libertad, la República y los derechos de Euskal Herria, y que fueron ejecutados o represaliados. Agradecí que sus creadores me invitaran a participar en ese indispensable proyecto.

Y fuiste el primer lehendakari de Durango 1936 Elkarte.

Sí, porque era el único de la asociación que había vivido y sufrido los bombardeos en Durango directamente. Los demás compañeros, descendientes de represaliados, habían nacido después.


¿Qué recuerdas de la guerra?

Aunque era muy niño, recuerdo espe-

cialmente los bombardeos, el tremendo estruendo de las explosiones, los techos y paredes que caían, el correr por las calles, las caras de horror de la gente... Huyendo fuimos a Bilbao, donde sufrimos más bombardeos fascistas. De Bilbao nos trasladamos en un barco carbonero a Santander y de allí, a Burdeos. Durante la guerra, *aita* apenas aparecía por la casa de

“Recuerdo especialmente los bombardeos, el tremendo estruendo de las explosiones, el correr por las calles, las caras de horror de la gente...”

Durango. No nos acompañó al exilio, se quedó cumpliendo con su deber, luchando contra el fascismo por la libertad, la República y los derechos de Euskal Herria.



1 Documento del cementerio de Derio donde se acredita el fusilamiento y la ubicación de los cuerpos de Juan Urutiaga y doce compañeros más.

¿Qué le sucedió a tu padre Juan Eskubi Urtiaga?


Le apresaron en Santoña, y fue condenado a muerte en proceso sumarísimo. Trasladado de El Dueso a la cárcel Larrinaga de Bilbao, los fascistas le fusilaron en Derio, el 24 de octubre de 1938.

¿Cuáles fueron las acusaciones contra él?

Aita había sido nombrado responsable de orden público de Durango, Miravalles y Lemona, por el Gobierno del Lehendakari José Antonio Agirre. Antes, había trabajado en Olma, estaba afiliado al Sindicato de Trabajadores Vascos (hoy ELA) y era miembro de ANV. Luchaba por las reivindicaciones sindicales y políticas. Los fascistas le culparon de los fusilamientos ocurridos en Durango el 25 de septiembre de 1936, tras un bombardeo en el que murieron 12 milicianos que jugaban en el frontón de Ezkurdi. La cárcel fue asaltada, acto al que *aita* se opuso, como otros durangueses. Veintidós presos defensores del alzamiento fueron fusilados en el cementerio. De hecho, logró sacar a uno de ellos de la fila y esconderlo en un caserío. Hace unos años, un hijo suyo me agradeció, en persona y por escrito, lo que había hecho mi *aita* por el suyo, gracias al tuyo, me dijo, "yo existo".

¿Pero por tu padre intercedió alguien?

Mi madre y mi abuela paterna hicieron lo que pudieron y más... Hasta intentaron entrevistarse con el obispo durangués Lauzirika, personaje fascista muy influyente, que nunca las quiso recibir.



JUAN ESKUBI URTIAGA (1907-7-21 / 1938-10-24)

Fundiciones y Talleres OLMako langilearen. Solidaridad de Trabajadores Vascos (STV) sindikatuko metalurgiko arduraduna Durangon, eta ANV alderdiko kidea. 1936ko altxamendu faxistaren ondorioz Durangon sortu zen Defentsa Batzordeko burua izan zen, ordena publikoaren arduradun nagusia. Santoñan preso hartu eta El Duesoko kartzelara eroan zuten. Epaiketa sumarísimo azkar baten ostean, heriotza zigorra ezarri zioten.

Juan Eskubiri leporatu zioten 1936ko irailaren 25ean Durangon hogeita bi preso tradizionalista fusilatzearen ardura. Egun horretan faxisten abiazioak bonba batzuk jaurti zituen Ezkurdiko frontoian eta hamabi lagun hil zituen. Mendekuz, miliziano batzuk Durangoko kartzelara jo, eta bertan zeuden hogeita bi presoak atera eta Durangoko hilerrian fusilatu zituzten. Hainbat lekukok adierazi du Juan Eskubi hilketa haiek ekiditen saiatu zela. Areago, fusilatzeke bila ari ziren tradizionalistetako bat berak ezkutatu zuen. Edozelan ere, argudiook ez zuten baliorik izan epaile militarren aurrean.

El Duesoko penaletik Bilboko Larrinagako kartzelara lekualdatu zuten. 1938ko urriaren 24an, Derioko kanposantuan fusilatu zuten beste hamahiru lagunekin batera.



AGUSTIN ESKUBI URTIAGA (1922-4-22 / 2018-3-12)

Agustinek hamalau urte zituen gerrak irten zuenean. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketa Komentukaleko ikaztegi batean ezkutatuta bizi izan zuen. Gero, zaurituak ebakutzeko lanetan laguntzen aritu zen. Hildakoak ehortzi eta zaurituak artatu ostean, Durangon apenas geratzen zen jenderik eta Juan anaiak Bilborantz joateko agindu zion, ordurako han baitzen familia guztia.

Juanek antolatu zuen familiaren ebakuazioa. Agustin eta Nicolas anaiak Ingalaterrara bidali zituzten, Habana untzian. Ama eta nebarreba txikiagoak Frantziara. Agustin eta Nicolas kanpamendu batean izan zituzten hasieran. Gero, Agustin Liverpoolera bidali zuten eta ia hiru urtez ez zuen anaia Nicolasen berririk izan. Eusko Jaurlaritzaren bitartez jakin zuen ama Frantzian zegoela, eta harekin kontaktuan jarrita, aita Burgosko kartzelan preso zegoela. Juan Eskubi anaiaren fusilamenduaren berri erizain euskaldun batek bidalitako gutun baten bitartez jaso zuen. Kolpea izugarria izan zen berak ez baitzekien anaia kartzelan zegoenik ere.

Agustin Eskubi Urtiaga hamabost urterekin iritsi zen Ingalaterrara eta luzaroan ezin izan zuen bere sorterrira itzuli. Hirurogeiko hamarkadan ama bisitatzeraz etorri eta atxilotu egin zuten derrigorrezko soldaduskari ihes egin ziolakoan. Osasun agiri batzuei esker libre irtetea lortu eta Ingalaterrara itzuli zen. Bertan eman du azken hatsa aurretan, udaberria iristear zela.





URI RUIZ BIKANDI

“Hizkuntzaren kontzientzia eta kontzientzia soziopolitikoak batera heldu zitzaizkidan”

Uribarri Ruiz Bikandi (1950, Durango). Gerraoste luzeko Durango erdaldunean jaio eta bertan euskaldundua. Iurretako ikastolako lehenengotariko irakaslea izan zen Sanchez Inspektoreak zarratu zuen arte. Elorrioko ikastolan ere aritua, Gasteiz aldera jo zuen eta EHU-n jardun du. Erretiratuta dago egun.

Familia, amaren aldetik, euskalduna zen baina zuk ez zenuen euskararik ikasi. Zelan hori?

Umetan, euskaraz ez nekiela, euskaldunez inguratuta bizi nintzen. Aita Goikoetxearengana joaten nintzen amamak bidalita. Han euskarazko kantak eta otoitzak irakasten zizkigun. *Aita gurea, Agur Maria* eta holakoak ikasi nituen euskaraz ez nekiela. Baina jakin mina pizten zitzaidan nik ez ulertzeko amamak eta amak euskaraz egiten zutenean. Ulertu gura eta ezin!

Noiz ekin zenion euskara ikasteari?

Hamasei-hamazazpi urte nituela, Scout taldeko Maite Agirrek, gure arduradunak, eragin handia izan zuen nigan ikas nezakeela pentsarazteko. Ez zegoen klaserik, ez zegoen metodorik, ez ezer. Blok bat neraman poltsikoan eta, kantak ikasi eta itzuliz, esaldi batzuk ikasi eta moldatzen nintzen. Latinez eta gramatikaz nekien

apurrak asko lagundu zidan. Ez naiz lotsatia izan sekula eta hori oso ona da hizkuntzak ikasteko. Geroago Patxi Zurikaraik eman zizkigun klase batzuk. Baina eginez, kalean ikasi nuen. Eta hor ohartu nintzen hizkuntza nola zegoen ezkutatuta.

“Jakinmina pizten zitzaidan nik ez ulertzeko amamak eta amak euskaraz egiten zutenean. Ulertu gura eta ezin!”

Ezkutatuta, zer zentzutan?

Esango dizut. Bitxia dirudi baina urte asko pasatu arte ez nintzen konturatu kolejoan, nire gelako gehienak, euskaldunak zirela. Seguruenik, gaztelera ikastera joandakoak asko. Debekatu-

ta zegoen euskaraz egitea, nahiz eta, geroago konturatuko nintzenez, mojak ere, gehienak euskaldunak ziren. Moja faxista batzuk *“A hablar eso, al monte”* agintzen zien egiten zutenei. Euskalduntzen hasi nintzenean mundu berri bat agertu zitzaidan. Biziki sentitu nuen euskaldunen poztasuna euskaraz ahalegintzen nintzenean.

Ez zen izan hizkuntzarena garai hartan piztu zitzaizun argi bakarra.

Hizkuntzaren kontzientzia eta kontzientzia soziopolitikoak batera heldu zitzaizkidan, pixkanaka. Hamazazpi bete berritan Ospitalean (Karitateko mojen eskolan) hasi nintzen klaseak ematen, magisterio libretik ikasten nuela. Umeekin ikasten nuen euskaraz, euskaldunak nire mahaian jarri eta eurekin euskaraz saiatzen. Eskola aspergarria, autoritarioa, gorrotagarria zen, eta han umeek asko sufritzen zuten. Nik ere bai.



Durangoko Kurutziaga Ikastola sortu berria zen. Miren Artetxe andereñoa ezagutu nuen eta irakaskuntza berriaz hitz egiten genuen elkarrekin. Hogei urterekin magisteritza amaitu eta ez nuen dudarik: ikastolara joatea betebeharrak soziopolitikoa zen eta aldi berean gustua. Dena zegoen egiteko. Kontzientzia itzartzen denean, denetara doa zabaltzen, pixkanaka.

Kontzientzia sozial horrek zeure baitan ere bazituen bere erroak, ezta?

Bai. Interesgarria zait kontzientzia mota bakoitzak sortu baino lehen erro txiki bat bazuela egiaztatzea. Gure

“Hogei urterekin magisteritza amaitu eta ez nuen dudarik: ikastolara joatea betebeharrak soziopolitikoa zen eta aldi berean gustua.”

“Franco gorrotatzeko dudan arrazoirik sakonena, erraietaraino sartuta: zenbat eta zenbat ostu digun, zenbat aukera, zenbat jakituria, zenbat pentsamendu...”

gurasoek taberna zeukaten trenbide ondoan (Bar Lin, Estación kalean) Nik ere laguntzen nuen han. Umetan inmigrante gizon andana etortzen ikusi nuen, trenetatik eta autobusetatik jaisten, pobreak, fardel edo kartoizko maletekin. Batzuk *maketoak* edo *ko-reanoak* deitzen zieten mespretxuz. Etxean irakatsi zidaten lan bila eta bizimodua ateratzera zetorren jendea zela. Denak nekazari pobreak. Andaluziarrak, galegoak, extremeñoak, Gaztelakoak, baina baita Errioxakoak eta nafarrak ere. Haien eskuak besterik ez zeukatenak. Askotan aitak dirua biltzen zuen haietako norbait gaixotu edo zerbait larria gertatzen zitzaionean. Ez zeukaten inolako defentsarik, inongo eskubiderik.

Ezagutza horrek markatu egin zintuen, beraz.

Esperientzia hauek guztiak nik hamasei urte izan baino lehenagokoak dira, baina pentsatzen dut bere lekua aur-

kitu zutela politikan sartu nintzenean. Komunistak taldekoa nintzen orduan, geroago EMK izango zena. *Manifiesto Comunista* hemezortzi urterekin-edo irakurtzean, erraz ulertu nuen zer zen proletario eta zer explotazioa.

Feminismoa izan da zure beste ardatzeta-ko bat.

Nik ama feminista *avant la lettre* izan nuen. Lehen konsigna feministak hari entzun nizkion: *“Emakume batek orain ez du zertan ezkondu, berak bere bizimodua ateratzen badu bere bizitzaren jabe izango da”* ; *“Ez dago eskubiderik Elizak emakumeekin egiten duenerako: erditzean ama ala umea hil arriskuan, ama hiltzearen alde beti”*... Horrelakoak esaten zizkidan hamabi, hamabost

urte nituela. Emakumeontzako jakituria, ikastea zen irteera. Eta halaxe izan zen.

Teoria gehiegirik ez geneukan, baina gaiak asko arduratzen zigen. Geroago etorri ziren irakurketak. Franco hil baino pixka bat lehenago *El segundo sexo* irakurri genuen, Argentinako 1973ko edizio batean, hona auskalo zelan helduta. 1974an Lidia Falconen *Cartas a una idiota española*, eta ez asko gehiago. 1976tik aurrera hasi ziren libururak andanaka heltzen batetik eta bestetik. Hori da Franco gorrotatzeko dudaren arrazoirik sakonena, erraietaraino sartuta: zenbat eta zenbat ostu digun, zenbat aukera, zenbat jakituria, zenbat pentsamendu...



JIMI JIMENEZ

“La búsqueda de la persona desaparecida empieza en el ámbito más cercano”



Investigador y arqueólogo, el durangarra Jimi Jiménez participa desde el año 2003 en el grupo de trabajo para el estudio de desaparecidos y fusilados de la Guerra Civil. Miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi lleva más de una década trabajando en la localización y exhumación de fosas comunes y es miembro de Durango 1936 desde su fundación.

¿Por dónde empezamos en la búsqueda de un familiar desaparecido en el contexto del alzamiento fascista y/o la represión posterior?

Como labor previa a cualquier investigación es necesario conocer del relato, es decir, poner por escrito toda información disponible sobre la persona y las circunstancias que rodean su ausencia o su desaparición. Entendemos por ausente a toda persona que, a pesar de no conocer su paradero físico, está inscrita documentalmente en algún registro, bien civil, parroquial o de cementerio, entre otros muchos. Por desaparecida entendemos a aquella persona que, además de no estar físicamente, tampoco está en la documentación. Conocer lo mejor posible a la persona facilita mucho la búsqueda: Conocer su edad aproximada, si estaba casada o no, si tenía descendencia, si fue combatiente, si estuvo o no detenida o en prisión...

¿Cuáles serían las fuentes adecuadas para establecer ese relato previo?

El entorno familiar en muchas ocasiones es lo más fácil y quizá haya que dar aquí los primeros pasos antes de pasar a visitar los registros más cercanos como son el ayuntamiento, la parroquia o el juzgado de paz del lugar de nacimiento o residencia. Estos lugares son los que ofrecen mejores garantías de acceso y consulta. En caso de conocerse la zona en que una persona murió o desapareció se procedería de igual manera en el ayuntamiento, juzgado de paz o, si existiesen, libros del cementerio local.

Supongamos que hasta ahí puede llegar un familiar, pero la búsqueda no da fruto o las informaciones son vagas y confusas...

Es recomendable continuar agotando los ámbitos más cercanos como son los archivos territoriales. Para Bizkaia disponemos de dos, el Archi-

vo Histórico de la Diputación Foral o el Archivo Histórico Provincial de Bizkaia. En este último se custodia un fondo muy importante pero también muy incompleto, el Registro Central de Fallecidos en Campaña, instrumento creado a iniciativa del primer Gobierno Vasco para centralizar las bajas habidas en las diferentes unidades que componían el ejército vasco. También es obligado dirigir la investigación al Archivo Histórico de Euskadi, sito en Bilbao. Aquí se guarda la información referente a diferentes batallones y a otra documentación creada por los diferentes departamentos de ese primer gobierno de Jose Antonio Agirre.

Podemos entender que los fondos de los “vencidos” no sean del todo completos por las condiciones y el contexto histórico.

¿Qué podemos decir de los “vencedores”?

¿Hicieron “bien” su trabajo de archivo?

Más allá de ese “bien” entrecomillado,



la realidad es que en la actualidad muchos de estos centros de documentación no ofrecen garantías mínimas de acceso por falta de una adecuada organización, personal especializado o espacios habilitados para la investigación. Aunque las leyes amparen al ciudadano en sus consultas y acceso a los archivos, siguen existiendo muchas barreras y limitaciones a la investigación.

De todos modos, de cara a continuar las investigaciones referentes al período de guerra y posguerra, los archivos más importantes dependientes del Ministerio de Cultura son el Archivo Histórico Nacional en Madrid, el Archivo General de la Administración en Alcalá

de Henares y el Centro Documental de la Memoria Histórica (antes Archivo de la Guerra Civil) en Salamanca. En estos sitios la información es muy variada. Desde informes de la policía, multas expedientes de depuración de funcionarios como maestras y maestros, ferroviarios, etc.

El paso por la cárcel también dejará su rastro.

Si la persona objeto de búsqueda pasó por alguna prisión será necesario dirigir la consulta hacia la Dirección General de Instituciones Penitenciarias dependiente del Ministerio de Interior. En este ministerio también podrán realizarse consultas sobre detenciones por parte de la policía o la guardia civil.

En el caso de los archivos bajo titularidad militar, el seguimiento lógico es acudir a los archivos históricos de Defensa, Madrid, Ávila, Segovia y Guadalajara en los casos del ejército de tierra. Marina en Viso del Marqués (Ciudad Real) y Archivo Histórico del Ejército del Aire en Villaviciosa de Odón (Madrid). Bajo esta misma titularidad está otro de los archivos militares cuya información está relacionada con los juicios sumarísimos habidos en el Norte, el archivo del Tribunal Militar Territorial 4º en Ferrol de donde hemos conseguido varios sumarios para la asociación Durango 1936 que se pueden consultar en la página web.

Exhumaciones

Desde que en 2002 el Gobierno Vasco anunció que se comprometería en la investigación de los casos de muertes, asesinatos y desapariciones de personas relacionadas con la guerra civil y la inmediata posgue-

rra, se han recuperado los restos de 118 personas de las 44 fosas exhumadas. Para ello se firmó un convenio con la Sociedad de Ciencias Aranzadi que se ha venido renovando hasta hoy de manera ininterrumpida. Navarra también se ha sumado a esta iniciativa de búsqueda y

exhumación desde el punto de vista institucional. Por lo tanto, el trabajo continúa por todo el territorio de Euskal Herria. La investigación no se centra exclusivamente en la exhumación de fosas, es cierto que es lo más visible y mediático, también los paraderos pueden encontrarse en la documentación, aunque los restos óseos no estén físicamente.

El objetivo principal de la exhumación además de confirmar lo recogido en el relato es la identidad de los restos. Esto sucede en muchas menos ocasiones de lo que se podría pensar. Puede servir el ejemplo de las 33 personas identificadas, la mayor parte de ellas entregadas a sus familias. Los restos no identificados o no reclamados continuarán su reposo de una forma más digna en el Columbario de la Dignidad de Elgoibar, inaugurado recientemente.



Banco de ADN

Como parte de esos procesos de exhumación y búsqueda de paraderos, la identificación genética se ha hecho un hueco muy importante en cualquier proceso de recuperación de memoria histórica.

En 2017 el Instituto de la Memoria Gogora junto con el laboratorio de

la facultad de farmacia de la Universidad del País Vasco (Biomics) creó un banco de ADN de personas desaparecidas. Este banco es público y gratuito para aquellas familias que tienen una persona desaparecida en la guerra civil. Este laboratorio se encarga de recoger y almacenar todas estas muestras, tanto de los familiares vivos como de los restos recupe-

rados en las exhumaciones. Siempre lo más recomendable es contar con un familiar directo para facilitar una identificación segura. Junto con la muestra es también importante la información disponible sobre la persona desaparecida o ausente, datos en definitiva que puedan orientar mejor la comparación de los perfiles genéticos.



1

AGIRREREN EHUN PEZETAK

1937ko apirilaren 3a. Lucia Ganboa ahiztarekin eta amarekin zegoen Durangoko tren geltokian, bi egunez bonbardatu eta txikitutako uritik eroango zituen trenaren zain. *“Badakizu zer egun dan, ume?”* galdetu zion amak. Ezetz. *“Gaur hamalau urte bete dituzu”*.

Lemoakoa zen sortzez Isabel Eizagirre Bediaga, Lucia Ganboaren ama. 1925ean iritsi zen Durangora, lan bila, berak bakarrik aurrera atera beharreko hiru umerekin. Abertzalea zen. Gerrarean Euzkadi egunkaria hartu ohi zuela gogoratzen du Luciak www.durango1936.org webgunean jasotako elkarriketan. Apirilaren 3 batez Durangoko geltokian hasitako ihes-bidaia luze joko zuen Isabelentzat eta familiarentzat: Lemoa, Bilbo, Santander...

Frantziatik Kataluniara

Luciak ez du gogoan Frantzian nora eroan zituen Santanderretik atera zituen kargaontziak. Badaki, gero, tren bidaia luze baten ostean Avignonera iritsi zirela. Bollénen, Avignon inguruko herrirka batean igarotakoak izango ziren gerrak eragindako odisearen barruan igaroko zituzten aste lasai bakanak.

Hasieran errefuxiatuak hain beso zabalik hartu zituen Frantziak iritzia aldatu zuen denborarekin. Bi aukera eskaini zizkien errefuxiatuei: edo etxera, Fran-

cok menpean hartuta zituen lurretara, edo, artean, Errepublikaren agintepean zirauen eremura. Bigarrenaren hautua egin zuen Isabel Eizagirrek.

Gironako Cellera de Ter herrian hartu zituzten. Abegi oso onik egin ez zietelako akordua gorde du Luciak urteotan. Eta gosea. Ganora barik egindako morokil antzeko bat ei zen, farru izenekoa, eguneroko jana, eralgi bako arto-urunez egindakoa. *“A comer farru, a Bilbao!”* esaten ei zieten herrian. Amak, jostuna izanik, etxe batean eta bestean konponketak eginez sos batzuk biltzen zituen.

Jose Antonio Agirrerekin

Jose Antonio Agirre lehendakaria Eusko Jaurilaritzak Bartzelonan zuen egoitzan zela jakin zuen Isabel Eizagirrek. Valentzian Errepublikarentzako armagintzan ziharduten fabriketara lanera joateko baimenak ematen zituztela aditua baitzuen, ez bat, ez bi, josten irabazitako diru apurrekin Bartzelonan plantatu zen. Lehendakariaren guardiaz ardura-

tzen zen dotore uniformatutako gizon batek egin zion harrera. Jose Antonio Agirrerekin egon behar zuela, Isabelek. Kaperan zegoela, meza entzuten. Ea berak ere joaterik bazuen, aspaldi ez zuela mezarik entzun. Baietz.

Pozarren itzuli zen Isabel Cellera de Ter-era. Batetik, hainbeste miresten zuen Jose Antonio Agirrerekin aurrez-aurre egona zen, *“Harekin meza entzunda!”*. Bestetik, Alberic-eko (Valentzia) armagintza fabrikara lanera joateko baimena lortu zuen. Hori gutxi ez eta, Agirre lehendakariak berak, ehun pezetakoa eman zion bidaiarako.

Alberic-en egon ziren faxistak sartu ziren arte. Kitto zen gerra. Durangora itzuli ziren eta orduan bai egoera latza: goian zerua eta behean lurra. Ez etxerik, ez lanik, mespretxuak eta eskasia bai ugari. Hala ere, Isabel Eizagirrek ez zuen egundo erabili Agirre Lehendakariak emandako ehun pezetakoa, urrea legez gorde zuen. Halaxe dauka oraindik ere, Lucia Ganboak.

1

Isabel Eizagirre Bediagaren argazkia. Atzean Jose Antonio Agirrek emandako ehun pezetako billetea.

LIBERTAD ZUEN IZENA

Eskutik heldu nau gaur Amamak. Bere atzamar hezurtsuekin, indarrez, gogor, estu. Begietara begiratu dit, zeru koloreko begirada samurrez. Irribarre egin dit, nik irria itzuli. Masailean muxu eman diot, banoala esanez, joan beharra dudala. Baietz esan dit, baina ez nau eskutik askatu.

Ez da erraza maite duzun pertsona bati agur esatea, nahiz eta hurrengo egunean ikusiko duzula pentsatu. Baliteke baietz, baina baita ezetz ere. Amamak ondo daki hori. Gerran sufritutako eskuak dira bereak, gerran sufritutako zimurrak, eta, tamalez, gerran sufritutako bihotza. Bere bizia salbatzeko, gaur bera hemen nirekin egoteko, hainbeste arimari agur esan behar izan diona.

Gizonen borroka bukatzen denean hasten da emakumeena, antza. Amamaren aita, gure birraitete (Juan Ibarra Arantzeta), odol hotzean erail zutenean hasi zen eta Isabel Pagaldai Marzana, gure birramama, eta bere seme-alaben benetako gerra. Alde egin behar izan zuten, deserrira joan behar izan zuten, Frantziara bertan zuten familiarengana. Lau eta sei urte bitarteko bi umek, eta euren amak.

Zoritxarrez, ordea, borroka ez zen hor bukatu. Isabel Pagaldai gaixotu egin baitzen. Hori dela eta, Isabelen gurasoek iritzi zioten bilobak Euskal Herrira itzultzea zela egokiena. Beraz, ama Toulousen utzita, Libertad eta Jose Luis nebak etxerako bidaiari ekin zioten. Amarekin gutun bidez jarraitu zuten kontaktuan. Euren lehenengo jaunartzeko argazkiak bidali zizkieten, inoiz ikusi ez zituenak.

Libertad Ibarra Pagaldai, gaur egun Amama Maite edo Mari Tere bezala ezagutzen duguna, baina pausu bakoitzean askatasuna bidelagun eraman duen emakumea.

Eskutik heldu nau gaur Amamak, begietara begiratu dit, irribarre egin dit. Ez dakit ezagutu nauen, baina ez nau eskutik askatu. Ez da erraza maite dugunei agur esatea. Maitasun sentimendu hori, ordea, ez da sekula ahazten, itxuraz aldaturik badago ere.

Eskerrak ematea besterik ez da geratzen. Eskerrik asko Euskal Herriko ama, amama eta birramama guzti, zuengatik gaudelako hemen eta zuengatik jarraituko dugulako borrokan, askatasunera arte. Eskerrik asko Amama, atzera begiratu gabe borrokan egiteagatik. Eskerrik asko Libertad.

Testua: **Katalin Garaita Zurikarai**

Libertad Ibarra Pagaldai

(Durango 1933-7-3)

Mari Tere edo Maite Ibarra Pagaldai. Libertad jarri zioten izena jaio zenean. Aita, Juan Ibarra Arantzeta, militante anarkista, Amua-tegi batailoiko kapitaina izan zen. Burgo-sen fusilatu zuten 1939ko abuztuaren 3an. Ama, Isabel Pagaldai Marzana erbestean hil zen, gaixorik, Toulousen, 1941an. Libertad umea Martzaara itzuli zenean Mari Tere bihurtu zen.

1

Maite Ibarra Pagaldai eta atzean gurasoak: Isabel Pagaldai Marzana eta Juan Ibarra Arantzeta.



BERRIZ

Berriz 1936 Gogoratzen

Hace 11 años que cada 11 de septiembre Berriz recuerda a las víctimas del franquismo y la dictadura. La fecha no es casual, ya que de los cuatro vecinos que fueron fusilados, dos lo fueron el 11 de septiembre de 1937. Gregorio Urquijo Alberdi fue fusilado un mes antes y como los dos anteriores, en el Cementerio de Derio y tras un consejo de guerra. Fermin Aranguren Alberdi lo fue en Asturias.

Nos reunimos en homenaje a ellos y a todas las demás víctimas. Berriz 1936 Gogoratzen, tiene documentadas 114 víctimas directas. Si tenemos en cuenta a sus familiares, que evidentemente también lo fueron, es fácil imaginar la magnitud del daño sufrido por los 2000 habitantes del Berriz de la época.

Desde los primeros actos de homenaje hemos intentado informar a nuestros vecinos y vecinas de unos hechos que la impunidad del franquismo, impulsada por los gobiernos del Estado, ha contribuido a ocultar.

Hemos recogido testimonios y buscado documentación intentando reconstruir nuestra historia. Primero para presentarla en Berriz, pero también, al mundo y a los juzgados.

Hace dos años el ayuntamiento se comprometió por unanimidad (PNV, EH Bildu, PSE-EE), si así lo deseaban los familiares, a presentarse en su nombre como querellante ante los juzgados de Argentina.

Los familiares de José Agirre, Felipe Urtiaga y Gregorio Urquijo, se incorporaron a la querrela y este pasado 5 de septiembre, la documentación sobre su criminal fusilamiento ha sido enviada, por el ayuntamiento de Berriz, al juzgado argentino. Es un hecho trascendente, al margen de cuál sea el curso legal de la propia querrela, ya que recoge documentadamente y con el aval de la institución, la primera reclamación de la tríada memorialista de verdad, justicia y reparación. Es la verdad sobre estos actos criminales.

Luchamos por la memoria para mejorar nuestra convivencia hoy y esto es inseparable de la defensa de los derechos humanos y de los pueblos. Por eso, este año, uniéndonos a la lucha de las mujeres contra el patriarcado, con el acto *Mujeres valientes*, hemos intentado visibilizar a algunas de las vecinas que lucharon y sufrieron desde el anonimato.



ELORRIO Laumunarrieta

Jesus Aristegi

Gure amaren aldeko osabak gerran hil zituzten. Amak kontatu ohi zuen amama Alejandrak zelako negarrak egiten zituen semeak falta zituelako: Felipe Larrañaga Zarraoa eta Jose Larrañaga Zarraoa, Elorrioko Gazeta auzokoak. Iaz jakin genuen Felipe Zaldibarren, Santamañazarreko

gudan hil zela eta Gernikako kanposantuan dagoela ehortzita. Laurogeita bi urte joan diren honetan, Jose-ren barririk ez dugu. Zenbat horrelako ez ete da egongo bazterrotan?

Elorrioko bonbardaketaren laurogeigarren urteurrena zela-eta, hiru lagun batu ginen zerbait egin nahian: Rikar Ajuria, Asencio Basauri eta hirurok. Udalarekin batu eta euren laguntzarekin hainbat ekitaldi antolatu genituen: bonbardaketaren ibilbide gidatua, Jon Ander Ramos historialariaren hitzaldia eta, Martxoaren 31ko bonbardaketa gogoratzeko ekitaldia herriko plazan. Jendetza batu zen plazara.

Hori ikusita, lagun gehiago batu ziren taldera eta Laumunarrieta elkarte sortu genuen, Elorrioko memoria historikoaz arduratzen den taldea. Gure zereginna Elorriko gaiari buruz jakin daitekeena ezagutu eta ezagutzera ematea da: informazioa bildu, dozena bat gizon-emakumeri grabaketak egin, gerrako sumarioak lortu, hobirik baden jakin, dokumentazio grafikoa batu, gerrako umeen berri izan...

Aurten, bonbardaketaren laurogeita batgarren urteurrena gogoratzeko hainbat ekintza antolatu ditugu aurrekoan hasitako bideari jarraituz. Bereziki azpimarratu gura genuke 1936-1945 urteen bitartean Elorriko emandako eskubide urraketak ikertzeko udalarekin batera atera dugun ikerketa beka. Mikel Diego bilbotarrari esleitu zaio. Ahanzturaren zulo beltzak irentsi baino lehen osatu gura dugu gure memoriaren sarea.



OTXANDIO

Andikona 36 Lantaldea

Otxandioko Andikona 36 Lantaldeak 14 urte daramatza Andikonako bonbardaketak eta Gerra Zibilak herrian eragindakoa aztertu eta azaleratzen. Urte hauetan hainbat lekukoren testigantzak bildu, sarraski hartan hil zirenei behar bezalako omenaldiak egin eta, batez ere, handik bizirik atera zirenei merezi duten aitortza eskaini eta aho-tsa eman diegu, hainbeste urtetako isiltasuna hautsi ahal izateko.

Duela bi urte "Lorrazak" Ibilbide historikoa diseinatu zen. Herritarrentzako ere bai, baina bereziki kanpotik datozenei Otxandion gertatutakoa azaltzeko tresna egokia da. Herriko hainbat txokotan, lehen bonbak jaurti zituztenetik *Nazionalek* herria okupatu zuten arteko gorabeherak ezagutzeko aukera eskaintzen du ibilbide honek. Ondoko hilabeteetan udalak herritar bat kontratatuko du hilean behin, asteburuan, ibilbide honen bisita gidatu bat eskaintzeko.

Bestalde, historia zer bizia da eta oroimena egungo eta etorkizuneko herritarrekin landu beharra dago, beraz, herriko haurrei zuzendutako material berezia sortzen ari da. Andikonako bonbardaketa aurretik eta ondoren herriko bizimodua nolakoa zen lantzeko aukera eskaintzeaz aparte, gaur egun antzeko egoera bizi duten errefuxiatuen gaiaz hausnarketa egin eta sentsibilizatzeko aukera eskainiko du unitate didaktikoak.

Horrez gain, aurtengo urtean zehar, Andikona 36 Lantaldeak eta udalak, elkarlanean, Gerra Zibilean eta hurrengo urteetako diktadurapean herritarrek jasandako giza eskubideen urraketak auzitegietara eramateko konpromisoa hartu zuten. Maiatza eta uztaila bitartean, biktimen arre-tarako bulegoa irekita egon da eta herritarren 17 salaketa jaso dira. Salaketa hauek, Udalarenaz batera, Argentinan zabaldu den prozeduran sartu eta Durangoko Auzitegian kereilak aurkeztuko dira hurrengo hilabeteetan. Historia zerbait bizia bada oroimena ezin dugu galdu, iraganen gertatutakoa berriz ere errepika ez dadin, ez Otxandion ez inon!

ZALDIBAR

Castet Kultur Elkarte

Castet Kultur Elkarte 1991an eratu zen eta, izenak adierazten duen moduan, bere zereginen artean gure herriaren memoria historikoa lantzea du helburu nagusietako bat. Izan ere Iñaki Castet, Abellaneda batailoiko komandantea, 1937ko apirilaren 25eko goizean Santamañezar mendian hil ziren gudarietako bat izan zen. Hogeita hamar eta berrogei artean izan ziren goiz hartan faxistei aurre egiten hil ziren borrokalariak. Kopuru zehatza ez jakiteak erakusten du oraindik aurrean dugun lanaren tamaina. Areago, jausitakoetatik hamar baino ez ditugu identifikatuta. Hildako gehienak, beharbada guztiak, Gatzaren Matxinada eta Abellaneda batailoietakoak ziren.

1993an hasi ginen, Santamañezarren bertan, gudari eta milizianoei gorazarre egiten, harrezkero urtero egiten duguna apirilaren 25ean edo hurbileneko igandean. Azken urteetan, Santamañezarreko ekitaldiak herriko kaleetan izaten du jarraipena. Beti lelo beraren pean: Euskal Herria eta askatasunaren alde borrokan jausitakoei omenaldia.

Santamañezarrekoa gogoratzeaz gain, beste hiru ildo ditu gure lanak. Batetik 1936-1937ko gerran Zaldibarren gertatutakoez dokumentazioa batzea. Beste alde batetik, eskuratutako informazioa, ganoraz kontrastatu ostean, zaldibartarrei jakinaraztea. Hirugarrena azken urteotan jorra-



tzen ari garena litzateke: oroimen historikoa lantzen diharduten Durangaldeko gainontzeko taldeekin elkarlana.

2015ean Zaldibarko udalak faxismoak hildako 29 herritarrei omenaldi instituzionala egitea erabaki zuen eta Castet Elkarteari eskatu zion hori guztia antolatzea. 2016ko urrian egin zen, gerran hildako lehenengo zaldibartarren heriotzaren 80. urteurrenean. Primo Bastida zen, Amuategi batailoiko milizianoa, Irungo borrokaldietan eroria.

Aurrera begira Castet Elkartearen asmoa orain arteko lanean sakontzeaz gain, berau zabaltzea da, 1936a baino lehenagoko eta 1937az geroztiko sasoiak ikertzea eta aurkuntza guztiak herritarren esku jartzea. Oroimen historiakoa gaur eguneko askapen borroken oinarrietako bat delako, gure ustez.

Poemak: Joseba Sarrionandia / Ilustrazioa: Irati Eguren

BASERRIA

Gorozika, 1937.

Ez zara zu, zorionez, 1937ko maiatzean Gorozikako
baserri hartara sartu zena
eta sortetxea, egunsentiko behelainoa desegin orduko,
hondaturik topatu zuena.

Hark ez zekien etxekorik aurkituko zuen, etxean.
Ez zegoela inor ematen zuen,

etxeko txakurra ere ez zitzaion irten bidera
aspaldiko kontentuekin.

Milizianoek utzitako zaborra bakarrik atartean,
atea parez pare zabalik,
ezkaratzean aulkia hautsirik, errautsa barreiaturik.
Kortara sartu zen,

abererik ez kortan, eta han ilunetan zegoela zarata bat
entzun eta tiro egin zuen
goruntz. Hiru zulo egin ziren zurezko sabaian eta
hiru zuloetako batetik hasi zen
odola jausten, irobala gorriaren moduko zorrotada
mehea, bere besagainera,

epela, isilik, eta ez zekien odol hura zerena zen
edo norena



ARROSARIOAK

Doneztebe, 1936.

Zuloa eginda zegoela
ekarri ninduten
neure auzokoen
kamioneta zaharrear.

Fokoen parean: zakur aurpegiak ziren
gizasemeenak
mendi barrenean. Isiltasunak ere
ausiki egiten zuen.

Izarrak izarniatzen ziren
zeru ilunean.
Presa zuten eta, banekien
egunsentia ez nuela ikusiko.

Sotanadun bat paratu zitzaidan
alboan, linternarekin,
Jainkoaren irribarrea ikus nezan
eskuko arrosarioan.

HISTORIA UNIBERTSALA


Istorio arraroak dira: hasi orduko
amaitzen dira,
amaitu ondoren hasteko
berriro.

Bidaia arin deskalabratuak
auskalo nora,
zer argi eta zer iluntasun
erantz.

Pertsonaiei hau edo hori
gertatu zitzaien
hura edo bestea kontatzen da gero
historia unibertsaltzat.

"Istorio arraroak dira historia
Unibertsala,"
esango du gero William Shakes
pearek:


datarik gabeko heriotzaren
gauetik.



Ahantzuraren kontra, memoria.

Visítanos y alimenta la
memoria histórica.

www.durango1936.org



**100 elkarrizketa - 1500 bideo
argazkiak - dokumentuak - albisteak**



Durango 1936
Kultur Elkartea